



EBAZPENA, HEZKUNTA POLITIKETAKO SAILBURUORDEARENA, 2024-2025 IKASTURTEKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASKETAK EGITEKO BEKA, LAGUNTZA ETA SOROSPENETARAKO EBAZPENEAN EGINDAKO AKATSAK ZUZENTZEKOA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua, eta dagoeneko indargabetuta dagoen Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2 artikulua, honako hau ezartzen du: “*Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak*”.

2024ko abenduaren 11ko eta 2025ko urtarrilaren 13ko ebazpenak aztertu dira, ebazpen horiek Hezkuntzako sailburuaren 2024ko uztailaren 16eko Aginduaren babesean ebatzi ziren (agindu horren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntzak eta sorospenak deitzen dira 2024-2025 ikasturtean), eta egiaztatu da, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzen txostenak ikusita, akats materialak edo egitezkoak daudela, eta zuzendu egin behar direla

Ondorioz, aipatutako araudia, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretua eta oro har aplikatzekoak diren gainerakoak ikusita, eta eman zaizkidan eskumenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

2024ko abenduaren 11ko eta 2025ko urtarrilaren 13ko, martxoaren 24ko eta maiatzaren 9ko ebazpenetan (unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko 2024-2025 ikasturterako beka, laguntza eta ikasketetarako subsidioei buruzkoa) atzemandako akats materialak edo egitezkoak zuzentzea, eta 284.580,50 €, ordaintzea, akatsak zuzendu ondoren sortutako aldeengatik, eranskinean jasotako datuen arabera.

RESOLUCIÓN DE LA VICECONSEJERA DE POLÍTICAS EDUCATIVAS DE CORRECCIÓN DE ERRORES DE LA RESOLUCIÓN DE BECAS, AYUDAS Y SUBSIDIOS PARA REALIZAR ESTUDIOS DE NIVELES NO UNIVERSITARIOS PARA EL CURSO ACADÉMICO 2024-2025.

El artículo 109.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en idénticos términos que el artículo 105.2 de la derogada Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, establece que “*Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos*”.

Revisadas las resoluciones de 11 de diciembre de 2024 y de 13 de enero de 2025, resueltas al amparo de la Orden de 16 de julio de 2024, de la consejera de Educación, por la que se convocan becas, ayudas y subsidios para realizar estudios no universitarios, en el curso 2024-2025, se constata, a la vista de los informes de las Delegaciones Territoriales de Educación, la existencia de errores materiales o de hecho que deben ser subsanados.

En su virtud, vista la normativa citada, el Decreto 381/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación y demás de general y concordante aplicación, y en virtud de las atribuciones que me han sido conferidas

RESUELVO:

Corregir los errores materiales o de hecho, detectados en las resoluciones de 11 de diciembre de 2024 y de 13 de enero, de 24 de marzo y del 9 de mayo de 2025 de becas y ayudas y subsidios al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2024-2025, y abonar 284.580,50 €, por la diferencias generadas tras la corrección de errores, según los datos reflejados en el Anexo.

Vitoria-Gasteizen,

Lucia Torrealday Berrueco
HEZKUNTA POLITIKETAKO SAILBURUORDEA